

# Argitalpenak

## Diskoteka

IKER BARANDIARAN

### Hardcore arima duen eskola zaharreko punka

Aspaldian urpean ibili ostean, Captain Nemo bigarren lan luzea aurkeztera etorri da. Metak desagertuta, autoekoizpenaren alde egin dute, beraien aurrekari izan ziren taldeek –Eskoria-Tza, Karkaxa, Naun, Heriotza, Fist Fucking...– egin zuten bezala. Euskal Herrian nagusi den porlana eta ustelkeria salatzen dute izenburuan, eta hardcore arima duen punk indartsua, ostia txarrekoa egiten dute. Hala ere, nabarmendu beharra dago disko honetan kantu rockeroagoak eta pixka bat lasaiagoak idatzi dituztela. Horien artean oso bitxia da ahaztutako Jotakie taldearen *Neu onena* kantuarien bertsioa egin izana. Kantu horri indarra eta abiadura batzeaz gain, Arturo NCC-La Perreraren gitarra *riff* bereizgarri eta haizezko instrumentuekin asko aberastu dute. Karlos Osinagarekin batu dituzte osagarri guztiak Bonbereneako sukaldian.



#### 1.280 Euskal Hiria

[Captain Nemo](#)

AUTOEKOIZPENA

Iraupena: 31'34"  
10 euro

CAPTAIN NEMO

## «Boterea dutenei kontra egiteko modua da gutxiago kontsumitzea»

**1.280 Euskal Hiria:** ustelkeria, porlana... Euskal Herria eraldatu egin dute?

Izenburuarekin salatu dugu ahoz aho duten Euskal Hiria ez dela jende arruntarentzako; gutxi batzuk aberasteko kontua da. Izenburua osatzeko ideia Jim Thompsonen *1.280 arima* liburutik hartu dugu. Liburu horretako protagonista Nick Corey sheriff ustela da.

**Bagdadeko morroia.** Zer egin dezakegu Irakeko inbasio eta sarraskia geldidakin?

Gutxiago kontsumitu beharko genuke. Hori da daukagun arma garrantzitsuena boterea dutenei kontra egiteko.

**Jotakie taldearen kantu baten bertsioa egin duzue.** "Lehendakaria izan nahiko nuke" dio kantuak. Zer egingo zenukete ardura hori hartuz gero?

Ia ezinezkoa da kaletar bat politikaria izatea; baina hori lortuz gero, politikarien soldatak desagerraraziko genituzke; borondatezko lana bihurtu.

**Disko honetan, hardcorearen espirituari eutsi arren, punk-rock gitarrerora jo duzuela esango nuke...**

Guk ez dugu aurretik kantuak nolakoak izan behar diren pentsatzen; eta kantuak konposatzeko orduan hardcorea dugu oinarri, baina egia da emaitza aurrekoa baino apur bat lasaiagoa dela. Ez dugu geure burua Buenawixtako taldeen parean ikusten; ez da hain punk-rocka, baina egia da AEBetako 80ko hamarkadako punka maite dugula.

**"Ispilua, mila zatitan hautsiko haut"...**

Hitz hori idazterakoan Lazkao Txikik bere buruari idatzitako bertso bat hartu genuen oinarri.

**Lan hau autoekoiztu egin duzue. Zaila izan da ur azpitik zuek bakarrik lehorra itzultzea?**

Neketsua izan da. Ez gara profesionalak, eta denbora ateratzea gero eta zailagoa da. Hala ere, autoekoizpena ez da arrotza guretzat, eta ez da lehenengo aldia. Bide egokiena da, eta are gehiago gauzak dauden moduan.

**Taldean aldaketak izan berri dituzue.**

Bai. Lander ez dago taldean, eta bere ordeaz Errastik hartu du baxua. Zuzenekoetan, berriz, sorpresa basatia izango dugu.

